BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4610

AGINDUA, 2014ko abenduaren 3koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Tutelar Ondoan» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Tutelar Ondoan» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko azaroaren 7an, Herri Administrazio eta Justizia Sailean eskabide bat sartu zen, Ondoan tutoretza-fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko (AVIFES–Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Bizkaiko Elkarteak sortu zuen fundazio hori). Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak bilkura egin du, fundazioaren helburuak zilegi eta interes orokorrekoak direla eta fundazioa ekonomikoki bideragarria dela egiaztatzeko, eta 2014ko azaroaren 25ean fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Hirugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, haren estatutuen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera:

Ondoan fundazioaren helburua hau da: Bizkaian buru-gaixotasunak dituzten pertsonen tutoretza-eginkizunak, eta euren gaitasun juridikoa eta eskubideak sustatu eta babesteari loturiko bestelako eginkizunak, baita familiei laguntzea ere, buru-gaixotasun dun familiakoei begirako etorkizuneko aukeretan.

Horiek horrela, fundazioaren helburutzat hauek hartu dira:

a) Agintaritza judizialak agindutako tutoretzako eginkizunetan jardutea, aplikagarriak diren arauen esparruan, eta tutoretza-karguen zabalera eta mugak zehazten dituzten epai judizialekin bat.

b) Ezgaitasun judiziala duten pertsonen ondasunak eta pertsona bera babestea, ezgaitze-egoerako prozesuan edo babesgabetasun-egoeran.

c) Buru-gaixotasuna duten pertsonen babes juridikoa sustatzea, ezgaitasuna aitortu behar bazaie; izan ere, Fiskaltzari jakinak diren gorabehera guztien berri eman zaio, eta tutoretza-kargurik eratu behar bada edo euren eskubideak babesteko behar den beste edozer egin behar bada, Kode Zibilean xedatutakoarekin bat.

d) Senideei eta beste eragile batzuei (toki-administrazioei, gizarte-zerbitzuei...) informazioa, orientabidea eta aholkularitza ematea, ezgaitze-prozesuari eta tutoretza-eginkizunen jardunari buruz. Horretarako, familiei buru-gaixotasuna duen senidearen etorkizunak eragindako kezkarako konfiantzazko irtenbidea eskainiko zaie, aholkularitzarekin eta tutoretzako eginkizunetako laguntzarekin batera, tutoretza-karguak errazago onar ditzaten eta familiek jardun horretan amore eman ez dezaten.

e) Buru-gaixotasunen gizarte-estigmaren aurka borrokatzea.

f) Buru-gaixotasuna duten pertsonen eskubideak babestea, erkidegoan sartu eta parte har dezaten, eta eskubide horiek gauzatzeko bideari loturiko aholkularitza eta orientabidea ematea.

g) Tutoretzapeko edo kuradoretzapeko pertsona gaitu edo birgaitu dadin eta gizartean sartu eta parte har dezan sustatzea, jagotea eta arduratzea.

h) Buru-gaixotasuna duten pertsonen eskubideak ahalik eta ondoen babesten, zeharka zein zuzenean, laguntzen duten orotariko jarduerak, zerbitzuak eta ekimenak egin, hobetu eta gara daitezen sustatzea.

i) Buru-gaixotasuna duten pertsonen ondasunak eta pertsonak beraiek babesteari loturiko alderdi eta eremu guztietan aplikatutako ikasketak eta ikerketak egitea, euren autonomia, ongizatea eta bizi-kalitatea sustatuta, edo gizarte-bizitzako eremu guztietan guztiz integratuta eta barneratuta, eta parte hartuta.

j) Gizarteak fundazioaren helburuak garatzera bideratzen dituen donazioak eta legatuak jaso eta kudeatzea.

k) Bestelako ekimen batzuk egitea, helburu horien garapenean hiritarren lankidetza eta parte-hartzea izateko.

Laugarrena.– Estatutuetako 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, fundazioaren egoitza honako leku honetan izango da: Santutxu 40, behea, Bilbao (Bizkaia). Bestalde, fundazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan gauzatuko ditu bere jarduerak nagusiki.

Bosgarrena.– Hasierako dotazioa hogei mila (20.000) eurokoa da. Kopuru horretatik, erakunde eratzaile bakoitzak, hasieran, hamar mila (10.000) euro ordaindu ditu. Gainerako kopurua, hau da, hamar mila (10.000) euro AVIFES–Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Bizkaiko Elkarteak jarri du, bi mila (2.000) euroko urteko ekarpenaren bidez; hala ere, beretzat du beste inoiz egoki iritzitako ekarpen handiagoa egiteko aukera.

Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 37.1.c) artikuluak. Erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak onartu du.

Seigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, hala xedatzen baita fundazioaren estatutuetako 11. eta hurrengo artikuluetan.

Zazpigarrena.– Hasierako patronatua, fundazioaren eratze-eskrituran xedatutakoaren arabera, estatutuetako 11., 12., 15., 16., 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren haritik, honako hauek osatzen dute:

Berezko kideak:

Lehendakaria: Miguel Ángel Núñez Sánchez de Luna jn.

Idazkaria: José Ignacio Martínez Menaya jn.

Batzordekidea: Miren Zamakona Azkuna and.

Batzordekidea: Edurne Solupe Fernández and.

Batzordekidea: Juan Ignacio Zabala Alonso jn.

Hautetsitako kideak:

Batzordekidea: Miguel Ángel González Torres jauna.

Batzordekidea: Carlos Abuin Iglesias jn.

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Aipatutako arauak eta oro har kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak IKUSIRIK, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea –egun honetan eta F-377 erregistro-zenbakiarekin–: F-379, Bilboko «Fundación Tutelar Ondoan» fundazioaren eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatu horretako kideak zazpigarren aurrekarian agertzen dira. Kideok espresuki onartu dituzte euren karguak, 2014ko azaroaren 3an, Bilboko Ignacio Alonso Salazar notarioaren aurrean (1.531 protokolo-zenbakia) egiletsitako eskritura publikoan xedatu bezala.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 3a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.